

Wilhelm von Humboldt hizkuntzalaritza modernoaren sortzaile gisa

(Wilhem von Humboldt as creator of the modern
linguistics)

Gipper, Helmut
Westfälische Wilhelms-Universität Münster
Schloßplatz, 2
48149 Münster

BIBLID [0212-7016 (1996), 41: 2; 401-418]

Humboldtek hizkuntzalaritzaren oinarri emankorra finkatu zuen arren, haren garapen historiko-konparatzaileak bestelako bideak jarraitu zituen lege fonetiko indoeuroparren azterketa zela eta. Geroko estrukturalismo positibista ere ez zen Humboldten ildotik abiatu. Cassirer-ek, alabaina, haren ideiak berreskuratu zituen, bai eta Leo Weisgerber-ek sakonki garatu ere. Geroago, estrukturalismoaren ikuspegitik berreskuratu dira eta egun bada Alemanian Humboldt berri bat goiburua duela lan egiten duen mugimendu bat.

Gitz-Hitzak: Kantiar filosofia. Hizkuntzalaritza.

Tras afirmar que la investigación lingüística constituye la coronación de la obra de Humboldt, el autor de este trabajo se detiene en los fundamentos filosóficos kantianos que sustentan sus teorías sobre el origen del lenguaje. Entendiendo que tres son los conceptos nucleares de la comprensión del lenguaje (cosmovisión lingüística, energía, forma lingüística interior), se hace análisis de cada uno de ellos, a la vez que se repasan los principales reproches levantados contra el pensamiento lingüístico de Humboldt.

Palabras Clave: Filosofía kantiana. Lingüística.

En plus des facettes connues d'Humboldt en tant que fondateur de l'université de Berlin, politicien, auteur, traducteur, etc., il faut souligner également son grand apport à la linguistique. Cet apport peut se résumer en trois idées clés: la considération de chaque langue comme une cosmovision linguistique, la considération de la langue comme énergie et le concept de la forme interne de la langue. Ainsi, Humboldt devint le premier penseur à donner un fondement global de la linguistique.

Mots Clés: Philosophie kantienne. Linguistique.

Giza egintzaren sail ezberdinetan gauzatasun anitz eta emari bikaineko nortasun jenialek beren ekinaren alde partikularrak liburu eta idazki tituluetan 'gisa' estereotipoaz argituak izatea jasan behar dute. Nazkatuta gaude jada Goethe adibidez artista, estatu gizon, kosmopolita, Napoleonen gurtzaile, antzerki zuzendari eta, azkenik, gizaki gisa ere aurkezten duten tratatu azkengabeez. Ez da oso ezberdin gertatzen Wilhelm von Humboldtekin. Humboldt ez entzuten dugu eskola erakunde prusiarraren buru gisa, institutu humanistikoaren sortzaile gisa, Berlingo Unibertsitatearen sortzaile gisa, diplomatiko eta estatu gizon gisa, idazki politikoen autore gisa, itzultzaile gisa eta abar. Eta orain gainera: Wilhelm von Humboldt hizkuntzalaritza modernoaren sortzaile gisa. Ez al dirudi honek legezatu gabeko gehiegikeria, Humboldt ekinaren alde baten gehiegizko balio emate harroaren arabera, zeina biografo askoren -adierazpen modernoan- iritiz, gehienbat zahartzen ari zenaren, estatuaren zerbitzutik botatako 'arazo konstituzionaletarako ministroaren' aisia edo denborapasa gisa ikusi dena? Humboldtengan aditu batzuk zuzenki arreguratu dute politikoki hain aktibo eta garrantzitsu zen pertsonalitatea gero eta gehiago ekintza zientifikoaren atal hain arraroan sartu izatea, bere iritziaren arabera hizkuntzalaritza hala izanik. Ez lirateke gutxi atzerriko ministro prusiar gisa bere bidea osatzen ikusi nahiko luketenak, bere bizitzako une batean lortzeko hurbil egon zen kargua, beraz, eta ziuraski estatu prusiar gaztea eta Alemania guztientzat gauza garrantzitsuak lortu ahal izango zituen bertan. Baina ez da arreguratu behar gizon handi bati egokitutako patua eta zerari buruzko alferrikako espekulazioetan aritu, zer gertatuko litzatekeen haren ordeez beste hau gertatuko balitz... Besteek zientziaren bakarlari eta baztertu honen bigarren mailako apetatzat soilik ikusi ahal zutena, guk bere benetako emaitza, beste guztiak gainditzen dituen kontsideratzeko aukera dugu.

Humboldt hizkuntzalaritza saileko ikerketa ez da gure konbikzioaren arabera arrakasta eta huts egite politikoa bidetik desbideratze tamalgarria, baizik bizitza baten lanaren benetako koroatzea, zeina bere adarketa guztietan giza ezagutza eta gizakien ezagutzara zuzendu zen. Bere ahalegin eta ikerketa guzti honen benetako xedera iristeko Europako herri esanguratsuenetara igorri zuten eta herri eta hizkuntza gehienak zuzenean ezagutzeko aukera eman zioten ihardun eta kargu ezberdin guztiak behar izan zituen. Misio diplomatiko ezberdinek giza bizipenen beharrezko kantitatea eman zioten bere zabalera osoan 'pentsamenduaren organu hezitzailea (bildende)', bere gaia zena, 'arrazoimenaren sen intelektuala', beste hitzekin, hizkuntza bera kontsideratzeko, eta bere sakonera izkutu arakatzeko. Jatorria eta egoera, heziketa (Erziehung) eta independentzia materialak bere denborako izpiritu garrantzitsu denen harreman estura eraman zuten bizimodurako bidea baimendu zioten eta horrek bere ikuseremu izpirituala norabide guztietan zabaltzeko aukera eman zion. Politikoki oso mugitua izan zen denbora honetako ez soilik monarka gidariak, estatu gizonak eta estrategak jarri ziren berarekin harremanetan, baizik baita jakintsu eta artista, idazle eta poetak ere, zeinak garaiko bizitza izpirituala determinatzen zuten, gailurrean Schiller eta Goethe, biak berari oso estuki lotuta zeudelarik.

Ez da hau hizkuntzaren estudioarekiko Humboldt jeneraleko joera lehen gaztaroan nola azaltzen den eta ondoren, jarraikorki haziz, nola bere bizitza osoan laguntzen duen xehetasunez jarraitzeko lekua¹. Noski, hasieran pertsona eta herrien izaera, galdeketa etnologiko-historiko eta estudio fisiognomiko eta antropologikoetarako joera zuen. Baina ondoren poliki-poliki zelako iritzia heldu zen beregan, pertsona eta nazioen izate izpiritualera ezerk ez duela gehiago hurbiltzen hizkuntzak baino, eta hizkuntza izpirituaren bideratzaile gisa uler zitekeela. Hari gidatzaile gisa Humboldt ekinak hizkuntza beti berriekin zerikusia zeharkatzen du.

1. Alderatu honekiko Schaffstein (1952) eta Lammers (1936).

Grekera, latina eta frantsesari, espainiera, euskara, italiara, eta gainera txekera, hungariera eta, last not least, ingelesa gehitzen zaizkio. Bestalde hizkuntza indiar amerikarrekin aritu zen, Indonesia eta Polinesia irlategiko hizkuntzekin, sanskritoa ikasi zuen agure zelarik eta txinera klasikoan ere sartu zen, piskanaka hizkuntzen ezagumen osoa lortuz, bere aurretik edo ondoren hizkuntzen beste ikertzaileen batek lortu ez duen neurrikoa. Gertaeraz jositako bere bizitzaren zehar, ezta guda napoleondarraren nahasketen artean ere, zeina lan diplomatiko neketsuz bete zuen, ez zuen inoiz hizkuntzen estudioa gutxitzen utzi. Lan agortzaileko egunen ondoren denbora hartzen zuen goiz hasi zituen Eskiloren *Agamemnon* eta Pindaroren Oden itzulpenetan lan egiteko. Baina bere bizitzako azken hamabost urteek soilik eman zioten guztiz hizkuntzalaritzaren estudioari ekiteko aukera. Ohar gutxi hauek nahikoa izan beharko lukete hizkuntzalaritza arazoetan gaitasun falta egotzi diotenen iritzia azken hitza ez dela erakusteko.

Hitzaldi labur honen ingurunean ezinezkoa da orduko hizkuntzalaritzaren irudi bat zirri-marratzea, atzeko alde horren aurrean zera argitzeko, zein neurritan Humboldtten hizkuntzalaritza eta hizkuntzaren filosofiako lana bere garaikideen gaineratik dagoen. Era berdinean ezin da hemen oinarritu, zergatik Humboldtten bultzada hasieran nahiko eragingabea gelditu zen, eta ondoren gainera ahaztu egin zen. Borondate ona falta ez bazen ere, H. Steinthal eta A. Schleicher moduko gizonek Humboldtten pentsamenduaren bideak hartzea, zehaztea eta praktikan probatzea saiatu bazuten ere, ez zuten lortu Humboldtten asmoei erabateko justizia egitea². Hemeretzigarren mendeko hizkuntzalaritza, gehienbat aldaketa fonetikoaren erregular-tasunaren asmatetaren harrotasun zilegizkoarekin fenomeno fonetikoaren ikerkuntza historikoa eta hizkuntza indogermanikoak jatorrizko hizkuntza amankomun batera itzulerazteko bere lanean kontzentratu zuten ikerlarien bidean erori zen. Gure garaian soilik hitz egin daiteke Humboldtten benetako berpizkunde batetaz, Humboldtten hizkuntzaren ulermenak hizkuntza-aren teoriaren beharrezko zabalpena sartu eta hizkuntzalaritza enpirikorako emankorra egin duela esan daiteke³.

Zuzen gaitzen orain W. von Humboldtten benetako hizkuntzalaritzako lanera. Hemen lehenik zera esan behar da argiki:

Humboldtten idazkiak ez dira benetan erraz ulertzekoak⁴. Ez soilik pentsamenduaren gidapen konplikatuak, periodo elkargurutzatuak eta dikzio ezohikoagatik. Hau beste garaikideetan ere aurkitzen da. Baizik, batez ere, Humboldt irakurleari ez zaiolako kontzeptu ondo definituekin agertzen eta gutxi balioztatzen duelako bere lanen eraikuntza eta artikulazio sistematikoa. Kontzeptuen definizioak falta dira nabarmenki, pentsamenduaren bideak uneko burutazioa jarraitzen du mantsoki, itzulinguru luzeetan zabaltzen da, supituki gaira itzultzen da, aurkako argumentuetan luzatzen da berriro eta berehala oso azkar jarraitzen du aurrera. Hemen idazten duena, horrela esan daiteke, Grandseigneur bat da, bere liburuak erosi beharko litzuzkeen publiko irakurle batean pentsatu behar ez duena, defendatzeko iritzi doktrinalik ez duena, guztiz bere pentsamenduari eman daitekeena. Horrela, Humboldtten iharduna, Heinrich von Kleisten hitz bat aldatuz, idazkeran lantzen den pentsamendua bihurtzen da. Ez da harritzekoa pasarte askotan ukatuezineko zehazkabetasun, judizioaren erabakiezintasun, behin betiko jarrera hartzearen zalantza dagoea, eta baita batzutan nahaspilatzen

2. Alderatu honekiko Arens (1955: bereziki 224. hh.).

3. Hemen lan berri batzuk soilik emango dira: Hartmann (1957: 275. hh.); Gadamer (1962: 415 hh.); Apel (1963: bereziki 371 hh.); Lohmann (1963: 41-48); Ruprecht (1963: 217-236).

4. Alderatu R. Haymen biografia bikaina (1856: bereziki 4. liburua, lehenengo zatia - Aurkezpen hau ez da gainditu eta biziki gomenda daiteke.

duen iluntasuna ere. Ez da harritzekoa ere, idazki hauek hizkuntzalaritza garaikidean inongo egintza zabal eta eragin erabakiorrik ezin izatea eta pasarte partikularrak oraindik ere eztabaidatuak izatea. Humboldtten estilo zaila ez da, ordea, gaia lantzeko ezgaitasun izpiritualaren zeinua. Ez datza ezta ere Humboldttek eskolatze filosofikoa falta izatean, noizbehinka baieztatu den gisa. Uste dut puntu honetan ere Erich Heintel, garai honetako hizkuntzaren filosofiaren ezagutzaile sakona, kontraesan behar dudala, esaten duenean zentzu jakin batean zerbait tragikoa dagoela

Hamann eta Herder, erromantizismoak eta Humboldt bera ere, ideien aberastasun osoan eta zio bultzatzaileen sakonera osoan, filosofia sistematikoak bere 'kontzeptuaren ahalegin' neketsuan Descartes eta Leibnizetik Kant eta Hegeleraino lortutako baliakizun filosofikoa alde batera uztean⁵.

Nire iritziazen arabera hau ez dagokio Humboldti. Alderantziz, bere garaiko filosofiarekin sakonean eztabaidatu du, Fichte, Schelling eta Hegelekin, eta bereziki Kanten ulermenak neurri handi batean bereak egin ditu. Königsbergeko filosofoarekin 1788an Göttingenen jada hasten da sakonean lanean, eta nahikoa segurua izan beharko luke 1781ean azaldu zen *Kritik der reinen Vernunft*-en oinarriko printzipioak pentsamenduaren oinarri errefusaezin gisa berrezagutzen zituela eta beraietan ezagutzaren oinarri giza-orokor lotzailea ikusten zuela⁶.

'Pentsamenduaren legeetaz' hitz egiten duenean, gizaki guztiak daudela beraien menpe, hor Kanten apriorismoa isladatzen da. Kanten pentsamenduan zentrala den sintesiaren kontzeptua Humboldtten berriro agertzen da. Hain dira Humboldtentzat espazioa eta denbora begiespenaren (Anschauung) forma hutsak edo a priorizko begiespenak, ze hizkuntza batzuetako hizkuntz kategorია jakin batzuk begiespenaren forma horien jatorrizko isladapen gisa frogatzen saiatzen dela⁷. Aprioritasuna eta fenomenotasuna Humboldtentzat Kantentzat bezala elkarrekiko kontzeptuak bihurtzen dira. Giza ezagutzean orokorra eta beharrezkoa forma besterik ez dira beretzat ere, gauzak bere azpian agertzen direlarik.

Kanten adimenaren a priorizko kontzeptuak, bere kategorien taula, halabeharrezkoak dira Humboldtentzat. Hain konbentzitu dago giza pentsamendu ororen oinarri logiko jakin batzuetaz, ze hizkuntzen ezberdintasunari buruzko bere pentsamendu ausartak ezberdintasun pentsamenduzko-logiko mailan adiargitzea zalantzatzen duela.

Humboldttek erabat Kanten ganean eraikitzen du eta, horrelaxe, bere a priorizko kategorien jaraunspenak Humboldtten hizkuntzalaritza ikertzea puntu erabakiorretan balaztatu gehiago egin duela suztatu baino iruditzen zait. Pentsamenduzko aurreuposizio hauek, beraz, bereziki agertzen dira oztopo moduan hizkuntzak mundu izpiritual propio gisa aurkitzeko bidean, zeren filosofoak a priori emanda ezartzen baitzuten, benetan hizkuntz aurrebaldintza gabe pentsaezin direnak. Hizkuntza ez zen jasotzen faktore eraikitzaile gisa *Kritik der reinen Vernunft*-en eraikuntzan. Kantentzat hizkuntza, noizbehinkako oharrak utzita, ez zen arazo bihurtu eta, beraz, Heintelen judizioaren arabera filosofia kritikoa eta hizkuntzalaritzaren artean topaketa emankorrik izan ez bada, hau bederen alde filosofikoari hizkuntzalaritzakoari baino gehiago dagokio.

Dena den, Humboldttek benetan sinesten zuen Kanti lotuta a priori emandako adimenaren kontzeptu eta pentsamenduaren kategorien existentzian, hizkuntza aurreko eta kanpoko

5. Alderatu Heintel (1957, I: Sp. 589); gainera Derbolav (1959: 56-86).

6. Alderatu Haym (1856: 446 hh.); gainera Steinthal (1848). Cassirer-en tratatua (1920) ezin izan zen lortu.

7. *Ueber die Verwandtschaft der Ortsadverbien mit dem Pronomen* (1829; GS VI, 304-330).

eremuetan beraz, zeinei hizkuntza ezberdinek izendapen fonetiko ezberdinak ematea besterik egin behar ez duten. Printzipio onomasiologiko eztabaigarri hau batez ere 'eraiketa soilaz sortuak izan daitezkeen edo bestela huski adimenak eratuak diren'⁸ kontzeptuei dagokie baina beste puntuetan ere soma daiteke eta oztopoa bihurtzen da aldiberean ezartzen ari zitzaien ulermenerako, hau da, kontzeptua hizkuntzan eta hizkuntzarekin soilik uler daitekeela eta, beraz, azken batean ezin daitekeela hizkuntza kanpoko kontzepturik egon. Humboldtkek bere auresuposizio filosofikoengatik hizkuntzen ezberdintasuna askoz handiagoa ikusi behar zuten alde fonetikoan edukikoan baino⁹. Noski, berak barne hautemapen eta sentsazioetatik sortzen ziren kontzeptu askoz anitzagoetan, beraien eraketarako fantasia eta sentimenduak parte hartzen dutelarik, 'nazioen' ezberdintasun izpirituala eraginkor bihurtzen ikusten zuten (*Sprachbau* ; GS VII, 90 h. [Wa 3: 439]). Horrekiko, hitza eta kontzeptuaren arteko bereizketan mantentzen da, baina hitzak kontzeptua lehenik pentsamenduaren munduko indibiduo bihurtzen duela berrezagutzen du (*Sprachstudium* ; GS IV, 23 [Wa 3: 17]), non honek, bestalde, orokortasunean galtzen duen eta hizkuntzaren baldintzapeko ñabarduran irabazi. Hizkuntza bihurtzeko prozesua, beraz, jada kontzeptuaren errerealizatorako *conditio sine qua non* gisa berrezagutzen da. Halere Humboldtten hitz egiteko moduak, hitza kontzeptuaren zentzumenezko zeinu izatea (*Sprachbau* ; GS VII, 72 [Wa 3: 448]), interpretazio modernoagoa ere onartzen du, hitzarekin soinua esan nahiko balu bezala, zeina kontzeptuarekin batera batera biltzen den. Hau Saussuren zeinuaren kontzeptuaren aitzinapena litzateke, zeinaren arabera hitza soinua (*image acoustique/signifiant*) eta kontzeptuaren (*concept/signifié*) batasun gisa ulertu behar den. Bada, egia da Humboldtkek soinua eta pentsamendua hizkuntzan batasun berrian urtzen ikusten duela, baina F. de Saussuren era ezberdinean. Guztiaren gainetik kontutan izan behar da, Humboldtentzat alde zentzumenezko-fonetikoa eta kontzeptuzko-pentsamenduzkoa bi funtsean ezberdinak, elkarrekiko neurtuezinak eta bestalde esparru ahaidetuak direla, zeinak jarraikorki zerarantz ahalegintzen diren, hizkuntzan egiazko sintesian elkar lotzera¹⁰. Sintesi hau beste baten bitartez da bitartekotua, hau da, artikulazioa; berak soinua eta kontzeptua berdinki jasotzen ditu, nahiz biak oreka oso batera ezin baditu ekarri ere. Bada, soinuak gainditu beharreko oztopo irauten du pentsamenduaren hizkuntzazko eraldaketan (*Sprachbau* ; GS VII, 82 [Wa 3: 459]). Gainera, kontutan izan behar da Humboldtkek hizkuntzaren soinuari hizkuntzaren edukia eraketan askoz ere funtzio handiagoa eman ziola, F. de Saussuren arabera egin dezakeguna baino. Hiru eratan, izendapen imitatzailea (hotsizenekoa), sinbolikoa eta analogikoa, jaso dezake kontzeptua bere iritziaren arabera hizkuntzaren soinu esanguratsuak (*Sprachbau* ; GS VII, 76 hh. [Wa 3: 452 hh.]), guk gaur, ordea, soinu hutsak hobeto esango genukeenean, isolatu eta bere baitan hartuak, benetako izendapen indarra berrezagutua izateko, ezin du apenas esanahitasun nahikoa izan. Hizkuntzaren sistemaren baldintzapean dagoen edukiari lotuta soilik lortzen du esanahitasuna azken batean. Humboldtten ulermena, beraz, erabat independentea da, pasarte gehinetan ñabardura onomasiologikoa du, baina poliki-poliki zelako ideia sartzen da, kontzeptua hitzetik hain gutxi alden daitekeela, gizakiak bere aurpegiko formak kendu ezin dituen neurri berean (*Sprachbau* ; GS VII, 100 [Wa 3: 478]).

Humboldti nola kontzeptuen hizkuntzarekiko baldintzapena guztiz argi zitzaien pasarte osoki mugigarria 1816 bere *Agamemnon*-itzulpenaren hitzaurrean dago. Hemen zera dio:

8. Alderatu *Ueber das vergleichende Sprachstudium in Beziehung auf die verschiedenen Epochen der Sprachentwicklung* [= *Sprachstudium*] (GS IV, 22 [Wa 3: 16]).

9. *Ueber die Verschiedenheit des menschlichen Sprachbaues und ihren Einfluss auf die geistige Entwicklung des Menschengeschlechtes* [= *Sprachbau*] (GS VII, 82 [Wa 3: 459]; VII, 86 h. [Wa 3: 464]).

10. Alderatu Haym (1856: 503 hh.)

Hitz bat hain gutxi da kontzeptu baten zeinua, kontzeptua bera gabe ezin daitekeela sortu eta gutxiago mantendu; pentsamenduaren indarraren egintza indeterminatua hitz batean biltzen da, hodei arinak zero oskarbian sortzen diren gisa. Bada, izaki indibiduala da, izaera eta taxukera jakinekua, gogamenean eragiten duen indarrekoa eta ez ugaltzeko gaitasunik gabekoa.

(Humboldt 1857: xvi h.; GS VIII, 129)

Ikusten da, beraz, Humboldték funtsean bere auresuposizio filosofikoen aurka ulermen linguistikoa erabakiorra irabazi duela. Hau errepikatu egiten da, oraindik ikusiko dugun gisa, Humboldték hizkuntzen 'mundu-ikuspegia' (Weltansicht)-ren pentsamendu geniala gogartu zuenean. Hemen nahikoa izan daiteke Humboldtén emaitza berezia zehazki zeratan ikus daitekeela aipatzea, bere pentsamenduari filosofia garaikideko apriorismoak jarritako hesiak hizkuntzari begiraturaz gainditzeko gai izan zela.

Zuzen gaitzean orain Humboldtén hizkuntzaren ulermenaren pentsamendu nagusietara. Ongi iruditzen zait, eskala zientifikoarekin neurtu ezin daitezkeen oinarriko konbentzimenduen atzeko aldearen arabera kontsideratzea. Niri dagokidanez pentsamendu zientifiko eta filosofikoaren esparruan ez dago auresuposizio eza osorik, nahiz hau zientziaren teoriko batzuk nahi edo bultzatu. Ikertzaile bakoitza, sarri jakin gabe ere, oinarriko intuizio (Anschauung) eta konbentzimendu jakin batzuetatik abiatzen da, benetako ikerketa hasi baino askoz aurretiagotik bereak egin dituenak. Oinarriko intuizio (Anschauung) hauek 'mundu-ikusmolde' (Weltanschauung) adierazpen kargatuaz nahiz ekidiezinez izenda ditzaieku. Zentzu honetan mundu-ikusmolde bat konbentzimendu erlijioso, etiko-moral eta estetikoetan oinarritzen da, heziketa (Erziehung) eta esperientzia bitartez sartu zaizkigunak eta ondorengo bizitzan apenas osorik kentzeko modurik ez dagoelarik. Humboldtén pentsamendua ere halako auresuposizioen menpe dago, hemen ezin badaitezke ere, ez oinarritu, ezta legezatu ere. Baina ezin daiteke ezikiusiarena egin, bere pentsamendu zientifikoaren koordinatu sistema ere eratzen baitute.

Humboldtén oinarriko konbentzimendu horietako bat gizadia bere osaketa izpiritualerantz gorako bilakaera jarrai batean aurkitzen dela da. Sakonera ezagunezinetik datorren indar izpiritualak gizadia aurrera bultzatzen du, ulergarri egiten da hizkuntza indibidualetan, zeinek indar izpiritual honen forma indibidualizatu gisa bere lege propioen arabera beren bidea osatzen duten. Herrien giza bilakaera aurrerakorraren sinesmen hau, zeina Humboldtén arabera zibilizazioa, kultura eta sentimodu izpiritual eta etikoa armonikoki korroazten dituen hezkuntza (Bildung)-ren faseetan betetzen den, ongari gisa azaltzen da bere pentsamendu linguistikoaentzat (*Sprachbau* ; GS VII, 30 h. [Wa 3: 401 h.]). Bada, horrek gordetzen du hizkuntza grekoa eta sanskritoa, zeinak berak pentsamendu tresna bereziki bikaintzat zituenak eta bere hizkuntza alderaketa tipologikoarentzat eskala gisa hartu zituenak, aldeberean, gertagarri litzatekeenez, iadanik hizkuntzaren formaketaren (Formung) osaketa gisa kontsideratzetik eta haien aurrean gaurko gure hizkuntzak jeitsiera gisa ikusetetik. Hau da, aitzitik, garaikideen ikuspegi garailea: Jacob Grimmek hizkuntza alemanaren bilakera jatorrizko handitasun eta araztasunetik urruntze hazkorra gisa arreguratu soilik zezakeen* eta August Schleicher-ek hizkuntza bat historian sartzearekin batera galera eta hondamen naturaz halabeharrezkoa hasten dela ikusten du¹¹. Bitartean, Humboldték, aintzintasun greko-latindarraren bere miresmena eta flexio aberastasunaren galera hizkuntza

* Hau, ordea, ez dagokio gehiago azkenengo Grimmi, nor 1851ean 'pentsamendurako joera' bilatzen duen bizi-ki emaitzak gehitzen dituen indar gisa eta ingelesari, bereziki Shakespeareari, gorespen handienak ematen dizkion (Grimm [1851] 1958, 52 hh.). Alderatu honekiko baita Gipper/Schmitter (21985: 82).

11. Alderatu Benes (1958: bereziki 70 hh.; 90 hh.).

berrietan ukaezina izan arren, hizkuntzaren bilakaera honetan gorako mugimendu izpiritual orokorra ikusteko handitasuna du, zeinaren esentzia zeratan datzan, izpirituak alperrikako formak, menperatzen dituen adina, bota egiten dituela eta horrela askeago osakera bilatzen duela (*Sprachbau* ; GS VII, 239 hh. [Wa 3: 637 hh.]). Hau benetan pentsamendu handi bat da, Humboldt bere garaikide eta bere jarraitzaile askotatik bereizten duena. Aldiberean, bera errromantikoa baino ilustrazioaren seme eta klasiko gisa gehiago azaltzen duen pentsamendua da. Honen alde hitz egiten du baita ere, berak errromantiko askorentzat ezagugarri zen ez bezala, ez zuela galdutako urrezko denboraldia bilatzen, zeina haiek gainera gehiago ertaro kristauean bilatzen zuten aintzinate jentilean baino, baizik aintzinate klasikoaren miresmen ororen eta honi lotutako ertaroaren gutxiespenaren arren, begirada itxaropenez beteoa oraindik etorkizun handiagora zuzendua mantentzeak¹².

Hizkuntzaren jatorriarekiko eta bilakaerarekiko Humboldten intuizioek (Anschauung) alde batetik, zuhurtasun jakintsua, bestetik, baina baita ideien aberastasuna eta sarkortasuna ere erakusten dute. Honela idazten du:

Hizkuntza gizadiaren sakoneratik sortu da, honek orhar debekatzen duela hura benetako lan gisa eta herrien sorkari gisa kontsideratzea. Hark guretzat ikusgarriki agergerri, nahiz bere esentzian azalezina den, autoekimena dauka eta alde honetatik begiratuta, ez da inongo ekimenaren produktua, baizik izpirituaren nahitaezko emanazioa, ez nazioen lana, baizik beren barneko patuagatik egokitu zaien dohaina. Hura erabiltzen dute, nola eratu zuten jakin gabe. Halere, hizkuntzak beti loratzen ari diren herri-leinuekin eta leinuetan bilakatu behar dute, zenbait hesi ezarri dizkien beren berezitasun izpiritualetik harilkatuz. Ez da hizkuntz-joku huts soila, hizkuntza norberatik datorren eta askatasun jainkotiarrezko autoekimen gisa soilik, baina hizkuntzak lotuak eta dagozkien nazioen menpe gisa aurkezten badira.

(*Sprachbau* ; GS VII, 16 h. [Wa 3: 386])

Hizkuntzaren jatorriak, beraz, esplikaezina dirau. Oraindik ez da hizkuntzarik bere formen sortzearen unean harrapatua izan, bakoitza iadanik osotasun bukatu gisa datorkigu. Gizakia hizkuntzaren bitartez soilik gizakia den gisa, eta gizakia izan behar zuen iadanik hizkuntza asmatu ahal izateko, horrelaxe baita hizkuntza ere bere sorkuntzaren unean organismo funtzionagarria da. Lehenengo antolaketa garaian Humboldten arabera nazio osoak hartzen du parte, geroagoko osotasun garaia batez ere indibiduo partikularren lana den bitartean (*Sprachstudium* ; GS IV, 8 [Wa 3: 6 h.]). Hizkuntzaren bilakaerarekiko gogoeta hipotetikoak soilik egin daitezke. Lehen maila bakun batean hitzak objektuentzat iladan jartzen zirela besterik gabe, uste du Humboldttek, uneko hizlariaren asmoari jarraituz eta ez oraindik erregela gramatikoak. Geroago hitzen kokapena finkatzen da, forma gramatikoak eta harreman-hitz gramatikoak sortzen dira, zeinak alde hitzekin batera hazten diren eta piskanaka haiekin nahastuz edo harreman-hitz huts gisa perpausaren eraiketarako erabiltzen diren. Azkenik, forma ekaiaren (Stoff) gain gailentzen da: orain ez da beste elementurik agertzen formarik gabe, denak formalki jarriak daude perpausa-loturan beren funtzioa betetzeko (*Sprachstudium* ; GS IV, 17 hh. [Wa 3: 13 hh.]). Konformazio (Durchformung) gramatiko honen goipuntu gisa hasieratik grekera agertzen zitzaien berari, berandu soilik bere ikusere-muan sartutako sanskritoak bere gailur-kokaera hori ezin zuelarik serioki arriskuan jarri. Hemen, grekeran, bere formen aberastasunarekin pentsamenduari forma barnekoenean hurbiltzeko egokia den eta poeta eta pentsalariei adierazpen-ahalbide susmaezinak irekitzen

12. Uste honek noski ez zituen baztertu noizbehinkako bilakaera atzerakorrak. Adibidez Humboldttek grekera zaharretik berrirako bilakaera erorketa gisa kontsideratzen zuen. Baina bere ikuspegiaren arabera bultzada berri batek beti ekar dezake gorako bilakaera berria.

zien hizkuntza daukagu. Hizkuntza aglutinatzaileak deituak, hau da, forma eratzen duten afixuak oraindik hitzen erro edo enborrarekin ez hain hurbil nahasten direla diruditenak, Humboldték tipo berezi gisa baino, gehiago kontsideratzen zituen benetako flexioaren aurre-maila gisa (*Sprachbau*; GS VII, 108 hh. [Wa 3: 408 hh.]).

Hizkuntzaren bilakaerarekiko jarrera horren ondorioz Humboldtentzat sorpresa handia izan behar zuen, beretzat primitibo zen hitzen ilada bakunaren maila hizkuntza batean errealizatu ikustea, zeina munduko kultura hizkuntza zaharrenetakoa gisa, ezin egon zitekeen hain maila baxuan. Ez dago apenas gizon honen zintzotasun zientifikoaren lekuko zirrarragarriagorik, egintza honi aurre egiteko bilatzen duen modua baino. Berehala hizkuntza txinarraren estudioan murgildu zen, gainera txinera klasikoan, zeina hizkuntza idatzi tipiko gisa bere egiturarekiko legeindar bereziaren menpean jarri behar den. Pentsamendu hartuemana hasi zuen orduko sinologo garrantzitsuenarekin, Abel Rémusat, hitzaldi akademiko eta 'Lettre à Monsieur Abel Rémusat'-engatik sonatua bihurtu den hartuemana¹³. Hemen erakusten da nola saiatzun den Humboldt hizkuntza honen egitura sartzun eta bertan mugitzen den pentsamenduen iladaren berezitasuna bere abantaila eta oztopoetan ezagutzen. Garrantzitsua da hemen, hizkuntza isolatzaile bati, non hitz aldaezinak lege jakin batzuen arabera partikula gramatiko gutxi batzuen babesarekin iladan jartzen diren, pentsamenduzko abantaila handiak berrezagutzeko prest dagoela, batez ere hemen determinazio formalengatik mugatua ez dagoen pentsamendua indartsuago eta arazkiago azpimarratzen delako. Halere, eta honekin oraindik aztertu behar dugun barne hizkuntz-formaren pentsamenduak iadanik garrantzia irabazten du, txineran ezinbesteko harreman sare gramatiko, zeina inplizituki iladaren forman ezkututzen den, erabat pentsatu behar da. Ezin da baieztatu Humboldtén judizioa, sakona izan arren, puntu guztietan nahikoa dela eta asetzen duela, baina esan daiteke begirada seguruarekin forma eraketa gramatiko eta ahalbide sintaktikoaren arteko elkarreagin garrantzitsuenak ezagutu dituela, beraz, hizkuntzen deskribapen moderno orotan kontutan hartzeko loturak. Humboldték azkenean pentsamendu mendebaldarraren miresle gisa hizkuntza indogermano flexiodunei aurea ematen badie, onartu egin behar zaio gutxienez hizkuntza hauek adierazitako harreman sare formalaren oinarriagatik egitan adierazpenaren zehaztasun, determinazio eta anizkotasuna ahalbidetzen dutela eta baita pentsamendu logiko-kausalarren forma jakinak ere betetzen dituztela¹⁴.

Humboldték hizkuntza alderaketa tipologikoari halako pentsabideekin bizkortasun erabakiorra eman ziola, hemen aipatu soilik egin daiteke. Berak, adibidez, hizkuntza inkorporatzaileak deitutakoen tarteko tipoari buruz esaten duena, gaur ez da oraindik gauditu. Halere, bere zatikera saiakerak gaizkiulertu nabarietatik babestu behar dira. Hizkuntza tipoak aztertzeko Humboldtén saiakera, ideien eraketa ordenatuago baterako grinatik dator. Baina berak ez du inoiz baieztatu hizkuntza errealak errepresentazio horiei osoki egokitu behar zaizkienik. Beregan, gehienbat, ideien eraketa eta enpiriaren lotura berezia kontutan hartu behar da, zeinen elkarjoku jarriak bere azterketa linguistikoak zail bezain erakargarriak egiten dituen. Ideien eraketa, hau da, agerpenen (Erscheinung) askotarikotasunaren atzean lotura izpiritual garaiagoak begizatzearen bilaketa, ezagutzaren grina gizatiarretik dator. Baina Humboldték ideia bakoitza jarraikorki erreallitatean probatzen du eta horrela bere ikerketan zientziaren teoriaren abiajarrera onargarriak batzen ditu, Helmut Schelskyk (1950: 102-116) pentsamen-

13. Alderatu *Lettre à Monsieur Abel-Rémusat sur la nature des formes grammaticales en général et sur le génie de la langue Chinoise en particulier*, GS V, 254-308; baita *Ueber den grammatischen Bau der chinesischen Sprache*, GS V, 309-324.

14. Alderatu Gipper (1963: 215 hh.), 3. kap., *Die Frage nach der Eignung einzelner Sprachen für logisches Denken in der Diskussion über das Chinesische*.

duaren tematizazio subjektibista eta objektibista gisa ezaugarritzea bilatu zituenak. Hor ere hizkuntzaren kontsiderazio oso moderno batentzat bide irekitzaile izan da.

Humboldtten pentsakerarako ezagugarria da, hizkuntza eta bere agerpenak gustora biologiarekin esparrutik, bereziki fisiologiatik, hartutako metaforekin ezagugarritzea bilatzen duela. Hizkuntza bakoitza beretzat hasieratik osotasun bat da, organismo bat. Organikoaren natura bera du, bakoitza besteengatik dela eta osoa denean sartzen den indar bakarra. Zatiek osoan duten elkarrekiko menpekotasunak dakar, Humboldtnek esan ahal izatea, lehen hitzak iadanik hizkuntza osoa aurreuposatzen duela. Hizkuntza, horrela, naturaren produktu gisa ikustean, orduan ezin daiteke benetan gizakiek egina izan. 'Gizaki intelektualaren fisiologiari' dagokio gehienbat, ez da, beraz, naturaren produktu bikain, baizik giza arrazoimenaren naturarena. Humboldtnek adierazten duen moduan ere 'arrazoimenaren sen intelektuala' edo 'barne izatearen organoa' dei daiteke (*Sprachstudium*; GS IV, 8 edo 15 [Wa 3: 7 edo 11]; *Sprachbau*; GS VII, 14 [Wa 3: 383]). Ikuskera hau, ordea, ezin daiteke biologismoarekin nahasi. Humboldtnek hizkuntza esentzialki gizakien existentziari nahi du lotu gehienbat, hura gizakiek taiutua eta aldatua izan badaiteke ere, hala ere, nolabait esateko, beren bigarren natura berezia da. Honekin ondo dator, Humboldtnek, gaur ohiko bihurtu den ez bezala, hizkuntza edo hitza ez duela besterik gabe zeinu gisa ulertzen. Beretzat hizkuntza gehiago da, irudi eta zeinu aldeberean, 'ez osoki objektuen inpresioaren produktua, eta ez osoki hizlariaren arbitrioaren sorkuntza' (*Sprachstudium*; GS IV, 29 [Wa 3: 21]). Hizkuntzaren soinuari ere berrezagutzen dio, aipatutako moduan, gaur egun kasua dena baino maila askoz altuagoan, hitzaren zentzuedukiaren eraiketan laguntzeko gaitasuna. Begiradaren luzera honegatik lortzen du, hizkuntza erabilera filosofikoa eta poetikoarekiko, edo berak esaten duen gisa, 'hizlaria'-rekiko, zeinak soinu-zentzu harreman ahagarriak erabiltzen dituen, hizkuntzaren erabilera zientifiko zehatzarekiko bezain zuzen jotatzea, zeinak hitza gehiago zeinu gisa erabiltzen duen. Horrela Humboldt φυσει aldebakarra eta θεσει eznahikoaren hizkuntzaren ulermen bitartekari argi gisa azaltzen da. Egitan, hizkuntza batean igorritako hitza ezin da giza artefaktu baten era berdinean hartu, gizakiak egindako kultura materialaren objektu gisa, eta guk hitz berriak asmatu nahi baditugu, gehiago eratu behar ditugu aurretik emandako eraikuntza erregelen arabera presente ditugun aurretik emandako material fonetikoe-kin, zentzu hertsian berri sortu baino. Gure zeinuaren kontzeptu modernoa sistemaren kontzeptuari hobeto egokitzen zaio, zeinak gainera organismoaren pentsamendua baztertu egin duen. Baditeke metafora berriak gaurko gure pentsamenduaren eskakizun jakinentzako zuzenago izatea, baina ezin da ahaztu aldebakartasun berriak ere halabeharrez bultzatzen dituztela.

Humboldtten organismoaren pentsamenduak bere baitan dauka baita esparru linguistikoaren gure teorema modernoa ere, hau da, hitz baten edukia auzoko balioen esparru batean kokatzetik artikulatzen dela eta honek kodeterminatzen duela ulermena. Nik espreski diot: esparruaren pentsamendua hemen implizituki dago; bada, Humboldtnek hizkuntzaren elementuen hizkuntza osotasunarekiko duten menpekotasun harremanaren ezagutza argia izan arren, nik ikusten dudana neurrian, ez du inoiz pentsatu, zentzu inguru jakin bateko hitzak esparruen arabera aztertzea¹⁵.

15. Adibidez *Sprachbau* (GS VII, 70 [Wa 3: 446]; VII, 170 [Wa 3: 560]). Goetheren estudio morfologiko eta bereziki osteologikoeikiko lotura hertsia espreski baieztatzen da gai hauekiko Humboldt anaiekin izandako elkarrizketeeikiko bere erreferentziarekin. *Agamemnon*-itzulpenaren hitzaurrean (1857: xvi) hizkuntza ezberdinek 'sinonimia kantitate berdina' aurkezten dutela dio eta hizkuntza garrantzitsuenen sinonimika bat aholkatzen du.

Guk, orain, Humboldtzen hizkuntzaren ulermenaren kontzeptu nagusiengatik galdetzen badugu, erantzuna ez da zaila izango. Hauek dira: 1. mundu-ikuspegi (Weltansicht) linguistikoaren kontzeptua, 2. energiaren kontzeptua eta 3. barne hizkuntz-formaren kontzeptua¹⁶.

Zuzen gaitezen orain, hasteko, egiazko asmakuntza bati berdintzen zaion Wilhelm von Humboldtzen pentsamendu bati, hau da, hizkuntzen ezberdintasuna ez dela soinuaren ezberdintasuna, baizik mundu-ikuspegiaren (Weltansicht) ezberdintasuna bera. Humboldtkek hau pasarte askotan hitzartu du, sarri aipatu eta komentatuak izan direnak. Hemen aipamen garrantzitsuenetakoa:

Pentsamendua eta hitzaren elkarrekiko menpekotasunetik argitzen da, hizkuntzak ez direla egitan bitartekoak, aurretik ezagututako egia aurkezten dituztenak, baizik gehienbat aurretik ezezagunak asmatzen dituztenak. Beren ezberdintasuna ez da soinu eta zeinuena, baizik mundu-ikuspegi (Weltansicht) beraren ezberdintasuna. Honen baitan dago hizkuntzaren azterketa oren oinarria eta azken helburua. Ezagugarriaren batura, giza izpirituak landu beharreko esparru gisa, hizkuntza orenen tartean dago, eta haietatik independente, erdian; gizakiak ezin du eremu objektibo huts horretara bere ezagutu eta sentitzeko moduekin baizik hurbildu, hau da, bide subjektibo batetik.

(*Sprachstudium* ; GS IV, 27 [Wa 3: 19 h.]

Esaldi honetan programa oso bat dago, hizkuntzalaritzarentzat egiteko izugarria, bere betetzerako oraindik neke handiagoak eskatzen dituena. Lehenik, ordea, zuzen ulertu behar da Humboldtkek esan nahi zuena. Bere auresuposizio filosofiko eta honen determinazio apriorizkoek benetan halako ulermenera behartzen bazuten ere, giza pentsamendua eta hizkuntza logika orokorki beharrezko baten lege berdinaren menpean legokeela, zeina hizkuntza ezberdinek bitarteko fonetiko ezberdinekin soilik erabil zezaketela, hasieran, beraz, sinesten bazuen, hizkuntzatik kanpora aurretik emandako, logikoki eraikigarri diren kontzeptuak hizkuntzaren hitzekin soilik ezberdin izenda litekeela, horrela, bere hizkuntzaren estudio enpirikoak gero eta gehiago zelako ulermenera zuzendu zuen, funtsean hizkuntza bakoitzak modu propioko mundu-ikuspegia (Weltansicht) duela bere baitan, gainera bere egitura gramatikoa beretik hasita ulertu behar dela, eta bortizki jokatzeko dela berarekin gramatika greko eta latindarraren termino tradizionalekin hurbiltzea bilatzen bada. Horrela ezagutu zuen, Rudolf Haym-ek (1865: 472) egoki adierazi duen gisa, hizkuntzak ezin direla logikaren gurutzan iltzatu.

Hizkuntzen mundu-ikuspegi (Weltansicht) honek zera esan nahi du, hizkuntza bakoitzak mundua bere eran ekartzen duela pentsamendura, mundua bere kategoria eta kontzeptuen sare propioan hartzen duela, perpausa eredu propioak prestatzen dituela, non baieztapena eta judizioa osatu behar diren. Hizkuntza baten barnean hazten denak inkontzienteki jasotzen ditu haren ikuskerak, mundua nolabait esateko bere ama-hizkuntzaren betaurrekoen bidez ikusten du, kolore eta soinu jakin batean, handitze eta txikitze espezifikoan, betaurreko hauen kontzeptuzko bilbadura berezia berekin dakarren neurrian. Adibide batean argitzeko, ikusmen osoz hizkuntza alemanaren gizarteko kide gisa ortzadarraren kolore aniztasuna begiratzeko duenak, noski koloreentzako hitz ezagunak diren gorri, laranja, hori, orlegi, urdin eta morearekin deskribatuko du, gaur egun kultura hizkuntza gehienetan gertatzen den antzera, beraz; baina XIX. mendearen hasieran laranja eta morea koloreen hitz gazteak ez zituen

16. Tamalez hemen alde batera utzi behar dira garrantzi gutxiagokoak ez diren Humboldtzen pentsamendua, hala nola, indibidua eta komunitatearen arteko harremanari buruzkoak, hizlari eta hizkuntzako subjektibitate eta objektibitatearen arteko elkarloturari buruzkoak, gainera hizkuntzari buruzkoak indibidua eta nazioaren, indibidua eta indibidua, hitz egitea eta hitz egindakoaren, orainaldia eta lehenaldia, natura mugatua eta mugagabearen arteko artekeri jarraikorrak gisa eta ulermenarekiko galderari buruzkoak.

eskura izan, hau akats gisa sentitu ez zuelarik (baliteke espektroaren kolore ilunena gorrimin gisa izendatzea).

Aintzinate klasikoko greko eta erromatarrentzat, aitzitik, ez zegoen halako ordena zehatzik eskura. Hizkuntza hauetako baten partaideak berak bilatu beharko litzuke koloreentzako hitzak, gutxigorabehera zentzu lotura finkoetan harrapatuak zeudenak, eta horrekin adierazi berak nahi zuena¹⁷. Gaurko Rodesiako shona hizkuntzaren partaideak espektroa lau koloreekin artikulatuko luke, bassako partaide batek, Liberiako hizkuntza, bi izango litzuke eskura, tono ilun eta argiak bereiztea apenas baimenduko luketenak (Gleason 1956: 4). Beste hitz batzuekin esanda: kolore tono ezberdinen askotarikotasun hori hizkuntza ezberdineko partaideei ezberdinki artikulatua eta hitzera ekarria iruditzen zaie, beren hizkuntzek ematen dizkie bertan kontutan hartzekoak diren ezberdintasunak. Hizlariak normalki hau egoki eta nahikotzat dute, eta bereizkuntza zehatzago baterako arrazoi bereziek bultzatzen ez duten neurrian, keinu linguistikoa jarraitzen dute eta mundua hizkuntzak ikusten irakasten dien moduan ikus-tera ohitzen dira. Gure hizkuntzak agerpen (Erscheinung) oro substantibo, adjektibo, aditz, etab. kategorietan heltzera eta baieztapenak aurretik emandako perpausa ereduetan isurtzera behartzen gaituen modura, horrela atzerriko hizkuntzen partaideak behartuta daude guztiz bestelako bereizketa kategorialak kontutan hartzera, beraz, gutxigorabehera objektuak kategorialki handiak edo txikiak, luzeak edo motzak, etab. diren arabera bereiztera.

Horrela, konturatu gabe, sartzen da hizkuntza, hitz egiten dutenen eta haien hitz egitearen gai den munduaren artean. Hortik dator 'tarteko mundu linguistikoari' buruz hitz egitea, Humboldték kontutan hartzen erakusten zuen modura eta inongo galdeketa gnoseologikotan ahaztu beharko ez litzatekeena (*Sprachbau* ; GS VII, 60 [Wa 3: 434]; VII, 177 [Wa 3: 567]). Hizkuntzak komunitatea (Gemeinschaft) bere ikuskerara sartzen duenez, erraz ulergarri bihurtzen da, Humboldték hizkuntza 'bere izate mugitu eta bizian, ez kanpokoa soilik, baizik aldeberean barnekoa, bere bakartasunean beraren bitartez soilik ahalgarri den pentsamenduarekin', benetan zuzenki hizkuntza komunitatearekin, hau da, bere hitzetan: 'nazioarekin', berdintzea (GS VII, 641 [Wa 3: 27]).

Halako egiteko izugarri bezain zaila izango da orain hizkuntza baten hiztegia bere artikulazioak ikuskor izateko moduan, eta aurretik emandako perpausa ereduak baieztapen eta judizioak zein pentsamenduzko bideetan zuzentzen dituzten argi izan dadila, deskribatzea.

Hizkuntza baten mundu-ikuspegia (Weltansicht) deskribatu eta horrela Humboldtén ideiak benetan emankor bihurtzeko egiteko beldurgarria onartu duen ikerlari bakarra Leo Weisgerber izan da. Askotan hedatu den bere *Vom Weltbild der deutschen Sprache* liburua urteetako ahaleginen lekukoa da¹⁸. Noski, lan horrek ez dio beti eskerrona eta berrezagutza ekarri, mereziko lukeen gisa. Orain dela gutxi berriro kritika ulertezin bezain desegokiaren objektu bihurtu da. Honi buruz, bukatzeko, zerbait esan beharra dago.

Kontsidera dezagun orain hizkuntza ez lana (Ergon), baizik ekimena (Energiea) delako esan sonatua (*Sprachbau* ; GS VII, 46 [Wa 3: 418]). Esaldi hau Humboldtén gehien aipatzen den eta eztabaidatuen den esanari dagokio. Egitan pasarte honek buruhaustek dakartza, eta Humboldték hemen 'Werk' eta 'Tätigkeit' kontzeptu alemanak ergon eta energiea kontzeptu grekoen bitartez azaldu behar dituela sinestearen egitate nabarmenak, arazo honen inguruan berak ere hitzartze egoki bat lortzeko borrokatzen zuela adierazten du. Humboldték

17. Alderatu Gipper (1964: bereziki 53 hh.)

18. Azkena berri landutako 3. argitarapena, 1. zatia: *Grundzüge der inhaltbezogenen Grammatik*; 2. zatia: *Die sprachliche Gestaltung der Welt*; Weisgerber (1962a).

iadanik errepikakorki hizkuntza egiteko (Verrichtung), sorkuntza (Erzeugung), izpirituaren emanazio eta lan gisa izendatu zuen, bere izaera energetiko, prozesuala azpimarratzeko. Jakina da berak, hemen, batez ere hizkuntz ekimenean, kanporako ahoskatzean, hizkuntza ekintza bakanean ez duela pentsatu, beraz, *parole*-ean Saussuren zentzuan. Humboldték azpimarratzen du, hemen arazoa ez dela hizkuntz ekintzen batura, baizik hitz egitearen osotasuna, soinu artikulatua pentsamenduaren adierazpenerako gai egiteko betirako errepikatzen den izpirituaren lana. Hemen, beraz, benetako hizkuntza bere egitako sorkuntzaren ekintzan hartzen bada, orduan hizkuntz ekintza bakanean hizkuntza prozesu motorea baina gehiago esan nahi beharko da. 'Hitz egitea' inolaz ere ez da ahoskatuaren berdina, baizik areago indibiduoaren pentsatzearen baldintza, baita bere bakardade itxian ere¹⁹. Energiearen esaldia, beraz, hizkuntzalaritzaren (Sprechkunde) lanaren agiri sortzailerik ez dela, edozein zalantzatik kanpora geratzen da. Leo Weisgerber-ek arrazoiz bota ditu atzera interpretazio azalekoak eta pasarte eztabaidatua beste paralelo batzuen testuingurutik interpretatzen saiatu da. Beraz, hemen hizkuntzaren berezitasuna indar eragile gisa ezagugarritu beharko litzatekeela azpimarratzen du bereziki, baita bere ama hizkuntzaren definizioan ere, 'komunitate baten munduari hitza emateko prozesu' gisa, adierazten den moduan²⁰. Hemen pasarte erabakiorra topatu da. Agian gaia gutxiago da indar eragilea bere baitan, zeina kritiko modernoek formalizatzeko behar handiz agertzen zaien, baizik ahalbide baten autoerrealizazioa, izpirituaren autoerrealizazioa, Johannes Lohmannek dioen modura²¹.

Baina beste interpretazio batek ere merezi du arreta, aipatutako Erich Heintel filosofoarenak, hain zuzen. Humboldtén pasarte oinarriaren problematika mendebaldetarretik interpretatzen du, zeina logosaren arazoari lotzen zaion, eta testuinguru honetan energieari 'mundua edukitzearekin eta gizaki izatearekin orohar loturan funtzio eraikitzailea' ematen dio. Bertan funtsezkoa da 'objektua eraikitzen duen funtzioa', zeina hizkuntzaren ekintzan eragile bihurtzen den, harremanean jartzearen ekintza gisa ulertuta, hau da, beraz, predikazio gisa. Presente dauden hitzak orain soilik bihurtzen dira zentzuzko baieztapenak; arazoa, beraz, hizkuntzaren sorkuntzaren ekintzan zentzuaren sorkuntza da²². Bi interpretazioak, Leo Weisgerber eta Erich Heintelenak garrantzitsuak dira. Heintelenak puntu ahul bat du zera esaten duenean, 'bere baitan ezer esaten ez duten izenak'- hizkuntzako hitzak esan nahi dulpredikazioaren ekintzan soilik betetzen direla zentzuz, hobeto esan beharko litzatekeenean, haiek ez direla izenak, baizik iadanik zentzua dakarten, hizkuntzaren sistemak baldintzatutako dimentsioak, perpausan ordena handiagoko zentzu batasunetan biltzen direnak. Horri buruz gehiago hitz egin beharko litzateke. Baimenduko zait, horren orde, aipatutako interpretazioak oraindik norabide determinatu batean osatzea eta aldatzea. Hau, noski, Humboldtén adierazpen propioak arretatsu jarraitzekotan, bere errepikakorki azpimarratutako konbentzimenduekin lotu behar da, hizkuntzaren benetako izaera erabileran soilik, bereziki elkarrizketa filosofikoan eta erabilera artistiko eta zientifikoko erakusten dela. Elkarrizketa zein garrantzitsu uste zuen, Humboldték pasarte zirraragarri batean esaten du:

Bata bestean biziro sartzen duen, ideiak eta sententzioak egitan aldatzen dituen elkarrizketa, iadanik nolabait esateko hizkuntzaren erdigunea da, zeinaren esentzia beti aldeberean soinu eta

19. *Ueber die Verschiedenheiten des menschlichen Sprachbaues* (lehenengo erredakzioa); GS VI, 155 [Wa 3: 195 h.].

20. Alderatu Weisgerber (1953-54: 374-377; 1956-57: 65-73)

21. Alderatu Lohmann (1963: 42 h.); alderatu baita Jost (1960); gainera Weisgerber (1962b: 57-60).

22. Heintel (1957: Sp. 568 hh.). Objektuaren eraketaren kontzeptua Humboldtén 'hizkuntzetan berezko jartzearen ekintza'-rekin alderatu beharko litzateke (*Sprachbau*; GS VII, 212 hh. [Wa 3: 606 hh.]).

kontrasoinu, hitzartu eta erantzun gisa soilik pentsa daitekeen, zeina bere jatorrian bezala bere eraldaketetan, ez den Batena, beti Denena baizik, zeina bakoitzaren izpirituaren sakonera bakar-tian dagoen, baina gizartean soilik nabarmentzen den.

(Ueber den Nationalcharakter der Sprachen; GS IV, 435 [Wa 3: 81])

Hemen, beraz, une batez beteko gaituen oraindik lotura zabalagoa bilatzen da. Hizkuntzaren sorkuntza (Hervorbringen) oro -ez egitea! (Erschaffen)-, zentzuzko hitz egite oro, hizkuntza indarraren erabilera, munduaren hizkuntzan eraldatze jarraia, munduari hitz emate etengabearen prozesua dela berrezagutzen dugunean, honekin oraindik ez da esan zein norabidetan mugitzen den prozesu hori eta zein joera azaltzen diren hor eragile gisa. Hizkuntzaren mundu-ikuspegia (Weltansicht), noski, baieztapen eta testu orora igarotzen da hitzean eta esaldiaren eraiketa planean, baina oraindik ez dakigu hori nola gertatzen den. Hizkuntza batek zein kontzeptuzko artikulazioak dituen eskura, zein esparru eta zentzu eremuak dituen eta zein errepertorio eskeintzen zion esaldien eraiketa planekiko deskribatzean, orduan oraindik irekita geratzen da, zentzu potentzial horren zein erabilera egin dezaketen hizkuntz komunitate honetako partaideek. Baliteke, adibidez, koloreen hitz ordena markatua eskura izatea, baina koloreen hitzak gutxitan eta gainera orduan modu oso determinatu batean erabiltzea, baliteke baita ere tempus sistema jakin bat eskura izatea, baina forma horietako gutxi batzuk soilik izatea ohiko, etab. Hizlariak beren hizkuntzarekin egiten dutena eta hizkuntza zeren gai den, hori hizkuntzaren erabileran soilik azaltzen da, baina bereziki literaturan eta hitzaren artelanean (Wortkunstwerk). Hemen dira ulergarri lehenik hizkuntza baten ahalbide eta kualitate bereziak, hemen azaltzen da Humboldték hizkuntza baten izaera (Charakter) deitzen duena. Horrela egiten da ulergarri, zergatik berak etengabe gramatika eta mundu-ikuspegiarekin (Weltansicht) batera, testua, monumentu linguistikoa, kontutan hartua jakin nahi zuen²³. Hitz egite eta hitz egindakoaren osotasunari literatura ere badagokio bere zentzu zabalenean, beraz, lekukotasun linguistiko oro. Begiradaren angulu honetatik energia hizkuntza indarraren destolesketa eta aldiberean pentsamendua eratzen duen indar formal gisa ulertu behar dela erakusten da, bere norabidearen xedea esaldi eta testu osoen zentzu taiukeran soilik bihurtzen delarik ikuskor. Zentzuaren sorkuntza, hemen, zentzu loturen produkzio gisa ulertu behar da, zeina ahalbidearen arabera noski aurretik emana dagoen, baina errealizazioaren modua aurreikusterik ez dagoelarik. Halabeharrezkotasuna eta askatasuna modu miresgarrian elkarlotzen dira hemen. Pentsamenduaren tresna prest dago, baina jokalaria behar du bere soka guztiekin doinua sortzeko, eta jokalaria hori gainera, jenialitate egokitzen zaionean, tekladia zabaldu eta inoiz entzundakoak, susmaezinezkoak adierazteko gai da.

Energiaren pentsamenduaren zabalpen honekin hizkuntzalaritza eta literaturaren zientzien arteko lotura eskeintzen da, edo bultzatu, eta zuzenki hori nahi zuen batez ere arte moduan sentitzen zuen Humboldték. Halere, gu, tamalez, diziplina auzo hauen halako elkarlan desiragarri batetik oraindik oso urrun gaude. Norabide honetako Karl Vossler-en ahaleginak era berdinean eraginik gabe geratu dira. Honetan hizkuntzalaritza eta literaturaren zientzia alderatzaileen lotura hertsia egiteko erabat erakargarriago, nahiz oso zailen konponbidera hurbilduko gintuzke. Baina René Wellek eta Austin Warren bezalako konparatista gidatzaileek hizkuntzaren analisisetatik alde filologiko bakanetatik M. Deutschbein, K. Vossler eta E. Wechsler bezalako ikertzaileek beren, alde ausartak, baina nahikoa ez diren saiakerekin eskeintzen dutena besterik itxaroten ez duten bitartean, horretan ezingo

23. Alderatu Haym (1865: 473) *Kawi* hizkuntzari erreferentziarekin.

da lortu benetan emankorra izango den topaketarik W. v. Humboldtten zentzuan²⁴. Hizkuntzalaritzaren aldetik, dena den, jasapen etengabearekin xede horrekin lan egin nahi dugu eta batez ere hizkuntz-artelana kontutan hartu, non Karl Vossler-en hitzetan, poetaren ama hizkuntzaren joera txiki ezkutuak, nolabait esateko, indartu, karrikatura bihurtu eta ispilu handitzaile batean jasoak aurkezten diren (Vossler 1923: 38).

Barne hizkuntz-formaren kontzeptua ere, orain zuzentzen garenera, Humboldtten beste oinarritzko kontzeptu orenen gisa, dagokion definizioaren ezean gaizkiulertu eta interpretazio oker anitzen menpe erori da²⁵. Hizkuntzaren eremuan forma gramatiko eta fonetikoez hitz egitea, argitzaile eta erraz ulergarri zen. Forma hauen esentziari buruz Humboldttek errepika-korki hitz egin du eta pentsamenduaren gaineko beren eragina konbentzigarriki aurkeztu du. Forma hauen ekaia (Stoff) bilatu ezker, dagokion hizkuntzaren material fonetikoan aurkitu ahal izango litzateke eta horri egokituko zitzaiokeen edukiagatik galdetuko lukeenak, formen esanahi eta funtzioetan begiztatu ahal izango luke. Baina zer zentzu du barne forma batez hitz egiteak? Non bilatu beharko litzateke ekai formatzailea, metafora ezohiko honek zentzua izan behar badu, eta orduan zer hartuko litzateke barne formaren edukizat? Humboldtten formaren kontzeptua zuzen ulertzeko, Goetherekin duen barne kidetasun izpirituala kontutan hartu behar da eta bi pentsatzaileek somatutako forma eta tankera (Gestalt) kontzeptuak indar formatzailearen printzipiora gehiago norabidetzen direla ulertu behar da eta ez fixuki formatua denera²⁶. Humboldttek esan nahi duena ez da forma *forma formata* zentzuan formen sistema gramatikoaren Ergon-ean azaltzen den modura, baizik *forma formans*, hizkuntzarekiko orotan sartzen den forma-indarra, energieia, beraz, barne forman bereziki hizkuntzaren alde edukizko-izpirituala jasotzen duena. Humboldtten formaren kontzeptua artikulazioarenarekin batera doa. Forma-indar linguistikoaren ekaia behingoz soinu oro har da, bestalde baina, Humboldttek barne formaren ekaia kontzeptuaren eraketaren (Bildung) aurretik doazen zentzuzko inpresio eta berezko (selbsttätig) izpirituarren mugimenduen osotasunean ikusten du (*Sprachbau* ; GS VII, 49 [Wa 3: 422]). Beste hitzekin: barne formaren ekaia parte hartze linguistikoaren objektu bihur daitekeen gauza oro da. Bestalde, alperrikakoa da barne forma horren edukiagatik behin ere galdetzea. Areago, hemen ez dago, Goetherekin hitz egiteko, ez muin ez azalik, baizik dena da hizkuntza batera. Absolutuki kontsideratuta ezin liteke, horrela azpimarratzen du Humboldttek, hizkuntzaren barnean formarik gabeko ekairik egon²⁷. Barne forma hizkuntza organismoaren alde semantikoari dagokio. Organismo honen osagai guztien gainera zabalzen da, kontzeptuen eraketaraino; baita hizkuntza baten oinarritzko hitzen eraketaraino ere jarrai daiteke. Ulertzen bada zein norabidera bideratzen duen barne formaren kontzeptuak, orduan ez dago definizio hertsiaorik eskatzeko beharrik. Hemen, gaia Leo Weisgerber-ek (1954: 571-579) munduaren eraldaketa linguistikoaren estiloa deitzen duena da. Gaur guri argi zaigunez, hizkuntzaren alde semantikoa ez dela inongo kaosik, kontzeptuen metaketa arbitrarioik, baizik bere baitan artikulatutako zentzu-kosmos

24. Alderatu Wellek/Warren (1955: 183). Bi autoreek 'comparative stylistics' etorkizun urrenean soilik lor daitekeen zientziazat dute. Vinay/Darbelnet (1958) eta Malblanc (1961)-en liburuetan oraindik hobetu behar diren saiakuntza berriak daude.

25. Alderatu *Sprachbau*, 'Innere Sprachform' kapitulua; GS VII, 86 hh. [Wa 3: 463 hh.]. Horrekiko positiboki Porzig (1923) eta Weisgerber (1926). Arazoaren aurkezpen zabal batean H. Ammann, F. Bollnow, E. Cassirer, O. Funke, H. Glinz, P. Hartmann, M. Heidegger, R. Höningwald, G. Ipsen, B. Liebrucks, H. Lipps, Th. Litt, J. Lohmann, A. Marty eta H. Steinthalen pentsamenduak jaso beharko lirateke.

26. Alderatu Goethe (1926: bereziki 301 hh.).

27. *Sprachbau* ; GS VII, 49 [Wa 3: 422]. F. de Saussuren esaldi famatua: 'hizkuntza forma da eta ez substantzia' hemen zehazkiago alderatu beharko litzateke.

zabala, non hizkuntza bereko gizakiek ezagututako mundu ordenak bere moduan hausnartu eta hitz ematen zaien, ez zaigu zaila egiten Humboldtten pentsamendu hau jarraitzea, Humboldtten berehalako ondorengoei baino errazago, dena den, nortzuk hasiera batean interpretazio psikologikoen bide ezberdinak hartzeko aukera ikusten zuten. Xedera eramaten ez zuten alboko bideak ziren.

Honekin bukatuko genuke Humboldtten hizkuntzaren kontsiderazioaren oinarriko pentsamenduen laburpen motza.

* * *

Halere, baimendua izan bekigu, oraindik hizkuntzaren ulermen honen aurka altza diren objektzio latz batzuekiko laburki jarrera hartzea. Gehienbat hiru kritika aipatu behar dira, eta dira: 1. nazionalismoarena, 2. determinismoarena, edo baita 'panlinguismoarena' ere, eta 3. erlatibismoarena.

Lehenik nazionalismoaren kritikarekiko. Nazionalismoa al da Leo Weisgerber-ek gehienbat hizkuntza alemana bere mundu-irudiaren azterketen objektutzat hartu badu? Erantzunak hauxe soilik esan dezake: inolaz ere ez. Bada, hizkuntza baten mundu-ikuspegia (Weltansicht) deskribatzen saiatzen den ikertzaile batek, ahal badu bere hizkuntza propiotik hasi behar duela, nabarmena da edozein pertsona adimendunentzat. Norberaren hizkuntzan soilik egon daiteke etxean, era honetako edukizko analisi sotilek eskatzen dutenez. Norbere hizkuntzan soilik izaten da erosezina den hizkuntzaren sentsazioa, hori gabe artikulazio semantiko mailakatu eta trinkoaren judizioa ezinezkoa delarik. Horrela, guztiz berezkoa zitzaien Leo Weisgerber-i alemanerarekin hastea. Baina jakina da, era berean, beste hizkuntzetako mundu-ikuspegiak (Weltansicht) berdin ikertu behar direla. Hau horregatik da iadantik beharrezkoa, orduan soilik mundu-ikuspegi bakanen arteko ezberdintasunak hizkuntza alderaketaz agerrarazi eta honekin bakoitzaren berezitasuna benetan oinarritu ahal izango delako.

Mundu-irudia (Weltbild) ezin daiteke mundu-ikusmoldearekin (Weltanschauung) nahasi. Hizkuntza baten mundu-irudia oinarriko fenomeno antropologikoa da, hizkuntza komunitate bateko partaideentzat munduaren giza ulermenaren eta munduan izate izpiritualaren abiapuntu amankomuna. Gainera, Humboldt-ek gutxitan erabiltzen du mundu-ikusmolde (Weltanschauung) adierazpena mundu-ikuspegi (Weltansicht) ordez. Franz Nikolaus Finck-ek 1889an oraindik arazorik gabe liburu bat *Der deutsche Sprachbau als Ausdruck deutscher Weltanschauung* dei zezakeen. Gaur guretzat mundu-ikusmolde (Weltanschauung) horrelako testuinguruan apenas da erabilgarria, berez errugabea den kontzeptua politikoki gaizki erabilia izan delako. Halere, noski, gizaki bakoitzak lehen bezala bitzta esperientzia eta kontzentzimendu pertsonalek determinatutako mundu-ikusmoldea (Weltanschauung) du. Baina mundu-ikusmolde hori hizkuntza ikastetik datorren mundu-irudi linguistikoaren aurrean epifenomenoa da. Aurreuposizio linguistikoen ganean soilik eraikitzen da. Mundu-ikuspegi (Weltansicht) linguistikoak, ondorioz, ez du inor eragozten katoliko edo protestante, kapitalista edo marxista izatera, baina pentsamenduaren ezinbesteko bitartekoak prestatzen dizkio, horiek gabe, ez bere pentsakidea, ezta ere aurkakoarekin ezingo lukeelarik harremanean jarri.

Mundu-ikuspegi (Weltansicht) linguistikoak ez ditu hizkuntza komunitate bateko partaideak bere hizkuntzaren esklabu egiten, eta honekin Humboldtten hizkuntzaren kontsiderazioaren aurka altxa den bigarren kritikan sartzen gara, gainera alde filologoen aldetik, nortzuk, egitan, hobeto jakin ahal behar zuten. 'Determinismo linguistikoa' edo oraindik okerreko 'panlinguismo' hitzarekin doan kritika da. Hizkuntza eta pentsamenduaren arteko uztarketa her-

tsiaz dakienari, W. v. Humboldtek errepikakorki adierazi duena (bitartean bi gaitasunak berdinu gabe, noizbehinka baieztatu den moduan) argi zaio hizkuntza pentsamenduaren eroale gisa ezinbestekoa dela eta eroale hau gainera hizkuntza batena soilik bere hainbat faktore pentsaezinekin izan daitekeela. Hizkuntzak, ordea, pentsa-egitura ematen badu eta pentsamenduak egitura hau igotzeko kontzeptuak, honek ez du esan nahi gizakiak hizkuntzaren aurka bertan eta bere gainean pentsa dezakeenik. Zientziaren aurrerapena hortan datza funtsean, eskura dauden kontzeptu-sare eta terminologiaren etengabeko eraikitze eta aldiberean zorroztean giza ezagutzaren mugak etengabe lur izpiritual berrira bultzatzen direla. Hau aurretik emandako hizkuntza naturalen bitartekoekin ahalgarri dela, erreferentzi sistema izpiritual honen berezitasun harrigarriari dagokio. Hauen ezagugarri dira irekiak, hau da, aldagarriak eta eraikigarriak izatea. Hauek izpiritua, halabeharrez indibidualizatzen duten neurrian, neurri batean mugatzen dutelarik, horrela ere gutxiago dira oztopo babes baino, gutxiago kaiola, giza izpiritualak orohar lor ditzakeen munduko eremu guztietarako ate eta giltza baino. Hizkuntzak, noski, zentzu-kosmos propioak dira, baina ez leihorik gabeko monadak, baizik ia esan daiteke, ekai aldaketaren menpeko organismoak, zeinak beste hizkuntzekin hartueman izpiritual-kulturalen hazkuntza, aberaskuntza eta osaketa hazkorra izaten duten.

Hirugarren kritika latza gisa erlatibismoarena aipatu behar da, nahiz eta benetan lehengo Humboldten aipamenaren bitartez indargetua izan den²⁸. Mundu-ikuspegi (Weltansicht) linguistiko ezberdinen onarpenak giza ezagutza ororen oinarritapenaren erlatibismora zuzentzen duela eta honekin batera zientziaren oinarria astindu behar duelako kritika da. Humboldt berak, baina, esan du, hizkuntza bakoitza ezagutza eta egirantz bide bakarra dela. Hizkuntza orok bilatzen du gu denok bizi garen mundu berdinarean ulermena, ezin dute hori egin kokaguneari lotuta, historikoki baldintzatutako moduan baino, ekidin ezin den aspektu izaera honek, ordea, ez dakar ezagupen eta ezagutzaren erlatibizazioa. Bada, gizakientzat orohar lorgarria den egia hizkuntza guztien tartean erdian baitago. Izpi konbergente gisa, giza ideien eremuaren lanketarako joera dute. Hizkuntza bakoitzak perspektiba berri bat gaineratzen du, aberaskuntza eta hazkuntza esan nahi du, denak batera soilik erakusten dute, giza pentsamendua zeren gai den. Hizkuntza bakoitza, teologikoki adierazita, arartekorik gabe berdina da Jainkoaren aurrean. Hizkuntza anitzek bide berrietatik gauzen esentzia berera daramate²⁹. Hizkuntza bakoitzak balioarazten ditu bertan dauden osagai eta erreferentzia logikoak era berezian, egokiago dirudielarik J.M. Bochenskirekin (1956: 17 h.) ez azkarregi logika gailen batetaz hitz egitea, baizik zuhurrago logika honen forma ezberdinetaz. Horregatik, iadanik ezin da hitz egin erlatibismoaz, guk hizkuntzan aspektuzko izaera alderaketan ezagutzen dugulako, eta aldebakartasun eta akats jakinak zuzendu ditzakegulako.

Nazionalismoa, determinismoa eta erlatibismoa Humboldten hizkuntzaren kontsiderazio modutik era berean urrundu behar dira. Ikusmen laburrekoak soilik ezezagut dezakete mundu-ikuspegi (Weltansicht) linguistikoaren pentsamendua hizkuntzalaritza modernoak jaso duen bizigarrietasuna dela. Ez du balio, aurkakoak susmatzen duten modura, hizkuntza eta herrien arteko bereizgarria gehitzeko eta gainera amankomuna ahazteko, baizik soilik berak ahalbidetzen duen besteak beren berezitasun propioan benetan ulertzea, eta horrela lortzen da soilik herrien egiazko ulermenerako auresuposizioa.

Esandakoaren ondoren orain ulergarriago izango da, Wilhelm von Humboldt eta ez beste inori hizkuntzalaritza modernoaren sortzailearen titulua eman ahal diezaioketela.

28. GS IV, 27 (Wa 3: 19 h.)

29. *Ueber den Nationalcharakter der Sprachen*, GS IV, 428 (Wa 3: 73); alderatu honekiko baita ere Weisgerber (1953: 3-4) eta Apel (1959: 176-194).

Hizkuntzalaritza alderatzaileari dagokionez, bera hasi zuen pertsonatzat Friedrich Schlegel aipa daiteke, *Über die Sprache und Weisheit der Indier* 1808 bere liburuan lehenik hizkuntzen alderaketa sistematikorako eskakizun hertsia jarri zituena. Daniar gazte bat, Rasmus Rask, izan zen *Untersuchung über den Ursprung der alten nordischen und isländischen Sprache* 1814 tratatuarekin Schlegelen eskakizunak bete zituena. Baina hizkuntzalaritza alderatzailearen benetako sortzaile gisa Franz Bopp dugu, *Über das Conjugationssystem der Sanskritsprache in Vergleichung mit jenem der griechischen, lateinischen, persischen und germanischen Sprachen* 1816 gazte idatzi zuen lanarekin indogermanistika eraiki ahal izateko oinarriak jarri zituelarik. Hizkuntzaren historia sistematikoa eta gramatika historikoaren eskakizuna Jacob Grimmek bete zuen, alemanieraren gramatika historiko-alderatzailearekin germanistikaren sortzaile bihurtu zelarik³⁰.

Gizon guzti hauen emaitzak hizkuntzaren zientziarako oso baliogarriak badira ere, ez dira iristen zabalean eta sakonean Wilhelm von Humboldtek hizkuntzaren esentzia eta emaitzaz, hizkuntzaren estudio orokor eta alderatzaileaz oinarri sinkroniko-tipologikoaren gainean zirimarratutako panorama izugarria. Schlegel, Bopp eta Grimmek hizkuntzalaritza oinarritzatu dute, beren emaitza nagusia hizkuntzaren kidetasun indoeuroparra alderaketa fonetiko historiko-sistematikoaren oinarriarekin erakustea delarik. Aldaketa fonetikoetan erregularitasunak deskubritzeak lan zientifiko hertsia ahalbidetu zuen. Gramatiko gazteak deitutakoek lagundu zuten indogermanistikaren eraikuntza miresgarria antolatzen, zeinari Alemaniak hizkuntzalaritza duen kokapen gidatzailea eskertu behar dion.

Hau ez zen oraindik, ordea, hizkuntzalaritza zentzu zabal eta oso batean. Hizkuntzan alde izpiritual-educikoa oraindik erabakiorri gutxitua zegoen. Hizkuntzaren kontsiderazio oso moderno baten neurriak Wilhelm von Humboldtek soilik jarri ditu.

Ideen zabalpen eta aniztasunean, sakonera eta problematikarekiko sentimenean, gizakia, hizkuntza eta munduaren bilbadurak tinkatzen duena, ez zaio inor hurbiltzen. Bizidunen erresuman gizakiaren kokapen bereziarekin zuzen jokatzeko duen hizkuntzaren ulermenaren oinarria jarri zuen, eta antropologia, filosofia eta gizakiaren beste zientzietarako zubi irmoa jartzeko duena. Ezin gara harropuztu lan mailakatu honen orri bakar bat bera nahikoa deskribatu dugulakoan. Pentsamenduaren emaitza gailentzako bezala, hemen ere kasua horrelakoa da, belaunaldi bakoitzak lanari orri berriak irabaztarazten dizkiola. Baina hau bai, arrazoi osoz esan dezakegu: gaur soilik iritsi bada Humboldti hizkuntzalaritzan merezi duen lekua emateko, horrela bera izan zenaren arabera kokatu behar da: hizkuntzalaritza modernoaren sortzailea zentzu zientifiko eta hizkuntz-filosofiko zabalean.

AIPATU BIBLIOGRAFIA:

- APEL, Karl Otto: Die Idee der Sprache in der Tradition des Humanismus von Dante bis Vico. Bonn: Bouvier 1963.
- ARENS, Hans: Sprachwissenschaft. Der Gang ihrer Entwicklung von der Antike bis zur Gegenwart. Freiburg, München: Alber 1955.
- BENES, Brigit: Wilhelm von Humboldt, Jacob Grimm, August Schleicher. Ein Vergleich ihrer Sprachauffassungen. Winterthur: Keller 1959.
- BOCHENSKI, Innocent Marie Joseph: Formale Logik. Freiburg, München: Alber 1956.
- CASSIRER, Ernst: Philosophie der symbolischen Formen. Erster Teil. Die Sprache. Neudruck Darmstadt: Wissenschaftliche Buchgesellschaft 1958 [Orig.: 1923].

30. Alderatu Arens (1955: 133 hh.) eta Benes (1958)

- DERBOLAV, Josef: "Hegel und die Sprache. Ein Beitrag zur Standortsbestimmung der Sprachphilosophie im Systemdenken des Deutschen Idealismus". Festschrift Leo Weisgerber. Hrsg. v. H. Gipper. Düsseldorf: Schwann 1959.
- GADAMER, Hans-Georg: Wahrheit und Methode. Grundzüge einer philosophischen Hermeneutik. Tübingen: Mohr 1960.
- GIPPER, Helmut: Bausteine zur Sprachinhaltsforschung. Neuere Sprachbetrachtung im Austausch mit Geistes- und Naturwissenschaft. Düsseldorf: Schwann 1963.
- GIPPER, Helmut: "Purpur. Weg und Leistung eines umstrittenen Farbwort". Glotta 62 (1964) 39-69.
- GIPPER, Helmut/SCHMITTER, Peter: Sprachwissenschaft und Sprachphilosophie im Zeitalter der Romantik. Ein Beitrag zur Historiographie der Linguistik. Tübingen: Narr 1979 [2. Aufl. 1985].
- GOETHE, Johann Wolfgang von: Goethes morphologische Schriften. Ausgew. u. eingel. v. W. Troll. Jena: Diederich 1926.
- GRIMM, Jacob: Über den Ursprung der Sprache. Frankfurt/M.: Insel 1958 [1851].
- HARTMANN, Peter: Probleme der sprachlichen Form. Heidelberg: Winter 1957.
- HAYM, Rudolf: Wilhelm von Humboldt. Lebensbild und Charakteristik. Berlin: Gaertner 1856 [Nachdr. Osnabrück: Zeller 1965].
- HEINTEL, Erich: "Sprachphilosophie". Deutsche Philologie im Aufriss. Hrsg. v. Wolfgang Stammler. Berlin, Bielefeld: Schmidt 1957, 563-619.
- LAMMERS, Wilhelm: Wilhelm von Humboldts Weg zur Sprachforschung 1775-1801. Berlin: Junker & Dünnhaupt 1936.
- LOHMANN, Johannes: "Wilhelm von Humboldt und die Sprache". Die deutsche Literatur [Osaka] 9 (1963) 41-48.
- MALBLANC, Alfred: Stylistique comparée du français et de l'allemand. Paris: Didier 1961.
- RUPRECHT, Erich: "Die Sprache im Denken Wilhelm von Humboldts". Die Wissenschaft von deutscher Sprache und Dichtung. Methoden, Probleme, Aufgaben. Festschrift für Friedrich Maurer. Hrsg. v. S. Gutenbrunner, H. Moser, W. Rehm, H. Rupp. Stuttgart: Klett 1963, 217-236.
- SCHAFFSTEIN, Friedrich: Wilhelm von Humboldt, ein Lebensbild. Frankfurt/M.: Klostermann 1952.
- STEINTHAL, Heymann: Die Sprachwissenschaft Wilhelm von Humboldts und die Hegel'sche Philosophie. Berlin: Dümmler 1848.
- VINAY, Jean Paul/DARBELNET, Jean-Louis: Stylistique comparée du français et de l'anglais. Paris: Didier 1958.
- VOSSLER, Karl: Das Verhältnis von Sprach- und Literaturgeschichte. Gesammelte Aufsätze zur Sprachphilosophie. München: Hueber 1923.
- WEISGERBER, Leo: Vom Weltbild der deutschen Sprache. I. Die inhaltbezogene Grammatik. Düsseldorf: Schwann 1953. - II. Die sprachliche Erschließung der Welt. Düsseldorf: Schwann 1954.
- WEISGERBER, Leo: "Zum Energeia-Begriff in Humboldts Sprachbetrachtung". Wirkendes Wort. 4 (1953-54) 374-377.
- WEISGERBER, Leo: "Die Erforschung der Sprach'zugriff". I. Grundlinien einer inhaltbezogenen Grammatik. Wirkendes Wort. 7 (1956-57) 65-73.
- WELLEK, René/WARREN, Austin: Theory of Literature. London: J. Cape 1955.